

**BATZORDE .IRAUNKORRAREN ADIERAZPENA, 2020-21 IKASTURTEAREN
HASIERARI BURUZKOA
2020ko maiatzaren 27an**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek, kide guztiei egindako kontsul-taren ondoren eta haien ekarpenak jasota, 2020/21 ikasturtearen prestakuntzari buruz adierazpena jakitera ematea onartu du, oso ikastaro berezia izango delako eta salbues-penezko neurriak ere beharko dituelako.

Gomendatzen da udako oporrak baino lehen, 2020/21 ikasturtea prestatzea, planifikatzea eta antolatzea, ager daitezkeen agertoki desberdinei erantzuteko, inprobisazioak saihesteko eta ikasleei arreta egokia emateko.

Ager daitekeen egoera hain konplexuari arrakastaz aurre egiteko, Hezkuntza Sailak gidatu behar duena, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzaren beharrezkotzat jotzen da, bai erabakiak hartzeko orduan, bai haietatik sortzen diren erantzukizunak hartzeko.

Horretarako, ikastetxeen autonomian eta, gobernantza-modu gisa, erabakiak elkarrekin hartzean, sakontzea gomendatzen da.

Halaber, beste proposamen batzuk egiten zaizkie Administrazioari eta hezkuntza-komunitateari:

1. 2020ko ikasturtearen amaierari eta udari dagokienez, honako hau proposatzen da:

- ❖ ikasturte hau amaitutzat eman aurretik, ikasle bakoitzak bere egoera pertsonal eta akademikoari buruzko diagnostiko indibidual, erreal eta zehatza izatea, eta, horren arabera, hurrengo ikasturterako esku hartzeko eta indartzeko neurri pedagogikoak eta antolakuntzakoak planteatzea, beharrezkoa bada; bereziki, egoera hori gogorren pairatu dutenei.
- ❖ Ikastetxe bakoitzak 2020-2021 ikasturteko plangintza espezifikoa egitea. Plangintza horretan, argi eta garbi zehaztuko dira oinarrizko gaitasunen garapena eta ikasleentzako arreta pertsonalizatua optimizatzea ahalbidetuko dituzten antolaketa- eta curriculum-neurriak.
- ❖ Curriculum-egokitzapenak areagotu egin daitezkeenez, aniztasunarekiko arretak baliabide berriak beharko ditu, antolaketakoak edo pertsonalak izan, eta horiek aurrez aurreikusi beharko dira.

- ❖ Udarako errefortzu bat behar denean, jarduera egingarriak, erakargarriak eta familientzat zama ez direnak planifikatzea.
- ❖ Euskararen errefortzuak eta udako aisialdia beste aukera bat izatea, aprobetxatu beharrekoa, beste erakunde eta gizarte-eragile batzuekin elkarlanean.

2. 2020/21 ikasturtearen hasierari dagokionez, honako hau proposatzen da:

- ❖ Ikasturtearen hasierako agertokia edozein dela ere, aurretik planifikatutako lanplana abiaraztea. Plan horrek bereziki zainduko ditu ikasleen harrera pertsonala eta arreta emozionala, eta arreta espezifikoa emango die inklusioarekin eta aniztasunaren tratamendurekin lotutako programa guztiei, beharrezkoak diren baliabideak sartuz.
- ❖ Familiei informazioa ematea ikasleei arreta egokia emateko beharrezkoak diren antolamendu-aldaketei, espazioei, denborei, metodologiei eta abarri buruz, eta erabaki horietan parte hartzea.
- ❖ Etapa guztietan, ikastetxeek teknologia digitalak erabiltzea dute helburu, egindako ahalegina aprobetxatuz eta hobetuz, bai irakasleentzat bai ikasleentzat, ikaskuntzarako ohiko tresnetako bat izan daitezten. Era berean, ikasle guztiek sarbide digitala izango dutela ziurtatzea, bereziki behar handiena dutenek. Horrez gain, hezkuntza-baliabide digitalak dituen plataforma bat sortzea, sistemako eragile guztiekin partekatu ahal izango dena, eta online zerbitzu jarraitua, teknologiaren erabileran zailantzak argitzeko. Horretarako, eskola publikoa digitalizatzeko premiazko plan bat eskatzen da.
- ❖ Hezkuntza indartzeko banakako planak(HIBP) areagotzea, bai eta aniztasunari eta hizkuntza-indartzeari arreta emateko programak eta Hamaika Esku motako beste programa batzuk ere.
- ❖ Euskarari dagokionez, kontuan hartuta kasu askotan euskararekiko harremana ikastetxean gertatzen dela, funtsezkotzat jotzen da epe labur, ertain eta luzerako errefortzu-neurriak diseinatzea, ikasleek beren komunikazio-gaitasuna euskaraz garatzen jarrai dezaten.
- ❖ Curriculum oinarritzko eta ezinbesteko gaitasunetara egokitu eta murriztuko da. Gaitasun pertsonala, komunikatiboa eta digitala lehenetsiko dira, gainerako ikaskuntzetarako funtsezko gaitasunak diren aldetik, bai eta beste gaitasun batzuk ere, hala nola ikasten ikastea, sormena eta pentsamendu kritikoa; horrela, hezkuntza integrala, konfiantzazkoa eta gizarte-ingurunean errotua ahalbidetuko da.

- ❖ Oinarrizko Lanbide Heziketan salbuespenezko neurriak ezarriko dira ikasle bakar bat ere kanpoan gera ez dadin egoera horrekin zerikusia duen edozein arrazoirengatik.
- ❖ Administrazioak oinarrizko gaitasunen garapenaren gutxienekoak gomendatzen ditu ikasturte/ziklo bakoitzeko, eta etengabeko ebaluaziorako eta prestakuntzarako irizpide argi eta zehatzak ematen ditu.

3. COVIDen ondoren hezkuntzarik onena bermatzeko beharrezkoak diren aldaketei dagokienez, honako hau proposatzen da:

- ❖ Aldaketa metodologikoak egitea, ikaskuntza-esperientzia presentzialak eta online ikaskuntza-esperientziak barne hartzen dituzten proposamen metodologiko berriak abiarazteko eta pilotatzeko.
- ❖ Denbora honetan ikasitakoa aprobetxatzea, ikasleen motibazioa areagotzen dituzten eta ikaskuntza esanguratsua lortzeko metodologiak abian jartzeko. Ikasleen arteko elkarreragina edo lana barne hartzen duten proposamenak, ikaslearen autonomia sustatzen dutenak eta esperientziazioa eta ikerketa bultzatzen dutenak.
- ❖ Irakaskuntza-ikaskuntza-prozesuen plangintza eta kudeaketa egitea. Aurrez aurre taldeek txikiagoak izan behar badira, gainerakoei arreta emateko aukera guztiak aztertu beharko dira, kontuan hartuta eskolak zaintza-funtzio bat betetzen duela, eta, oraingoz, funtzio hori beharrezkoa dela familia-kontziliazioa errazteko.
- ❖ Etengabeko ebaluazioaren oinarriak eta prestakuntza-ebaluaziorako estrategien aniztasuna sakontzea eta praktikatzeara.
- ❖ Irakasleen behar zehatzekin bat datozen prestakuntza-sistemak praktikan jartzea: emozionala, berdinen arteko ikaskuntza, gaitasun digitala, ikasleentzako aurrez aurreko nahiz online ikaskuntza-tresnak sortzea eta hautatzea, ikaskuntza-egoera hibridoaren diseinua, metodologia eta ebaluazioa. Horretarako behar diren denborak planifikatu eta kudeatzea.
- ❖ Familien parte-hartzea sustatzea, haien beharrak hautemateko: online hezkuntzarako baliabideak eta gaikuntza: ikastetxetik erantzunak ematen saiatzeko edo beste zerbitzu edo erakunde batzuetara bideratzeko.

4. Ordutegiei eta egutegiei dagokienez, honako hau proposatzen da:

- ❖ Egoera desberdinei eta familia-kontziliazioko premiei erantzuteko espazioak eta denborak antolatzekeo malgutasuna erraztea.

- ❖ Beharrezkoa denean, zabaldu egingo dira zentroak irekitzeko ordutegiak, errefortzuko, eskolaz kanpoko, sozializazioko eta prestakuntzako jardueretarako, bai eta ikastetxeak egokitzen dituenetarako ere.
- ❖ Denborak antolatzeko formula berriak bilatzea, sormenezkoak eta berritzaileak, ikasle guztien premiei erantzungo zaiela bermatzeko

Azkenik, beharrak handiagoak izango direnez, ikasle guztiei arretarik onena emateko beharrezkoak diren baliabideen azterketa sakona egitea gomendatzen da.

Egoera ekonomiko eta sozialaren larritasuna ikusita, Euskadiko Eskola Kontseiluak elkartasuna, erantzukizuna eta eskuzabaltasuna eskatu die hezkuntza-komunitate osoari eta Administrazioari, baliabide guztiak optimizatzeko eta areagotzeko beharrezkoak diren antolaketa-neurri guztiak har daitezzen.

Orain, inoiz baino gehiago, ekitatea bermatu behar da, haur bakoitzari behar duena emanaz.